

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Saila**

Iragarkia, Bizkaiko foru aldundiaren garraioak eta mugikortasun jasangarria sustatzeko sailarena; honen bidez, Bilbo eta Gasteiz artean bidaiariak errepidez garraiatzeko A-3700 kontzesioaren zerbitzu publiko erregular orokorraren aurreproiektua onartu izana jakinarazten da.

Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Foru Diputatuaren urriaren 17ko 642/2022 foru aginduaren bidez, bidaiariak errepidez garraiatzeko Bilbao-Vitoria/Gasteiz A-3700 kontzesioaren zerbitzu publiko erregular orokorraren aurreproiektua onetsi da, eta honako hau ebatzi da:

Lehena: Onartzea bidaiariak errepidez garraiatzeko Bilbao-Vitoria/Gasteiz A-3700 kontzesioaren zerbitzu publiko erregular orokorraren aurreproiektua, foru-agindu honi erantsitako agirian jaso.

Bigarrena: Hilabeteko informazio publikoko epea irekitzea, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan zehar, aukera izango da aurreproiektua kontsultatu eta egoki irizitako alegazioa nahiz oharrak egiteko, hala Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Sailaren bulegoetan, Garraioen Zuzendaritza Nagusia (Bilbon, Iparragirre kalea 21, 5) nola Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orrian: <https://web.bizkaia.eus/eu/a3700aurreproiektua>. Horrek, dena dela, ez du eragotziko aukera izatea horretarako legez aurreikusirik dagoen beste edozein bitarteko eta erregistro erabiltzeko.

Hirugarrena: Agintzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aurreproiektuaren onarpenari buruzko iragarkia, eta informazio publikoko epearen irekiera hilabetez.

Laugarrena: Entzunaldiaren izapide bat irekitzea, hamabost egunekoa, zerbitzu berriek zeharka nahiz zuzenean uki litzaketen zerbitzuen kontzesioen titularrei.

Bosgarrena: Aipatutako aurreproiektua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan garraioaren arloko eskumena duen sailari helaraztea, dagokion nahitaezko txostena egin dezan hilabeteko epean, ebaluatzeko ea aurreproiektua egokia den eta ondo egokitzen zaien hala Garraio Plan Orokorrari nola ukituak izan litezkeen mugikortasun planei.

Seigarrena: Aurreproiektua Euskadiko Garraio Agintaritzari helaraztea, nahitaezko txosten ez-loteslea egin dezan hiru hilabeteko epean (Euskadiko Garraio Agintaritzari buruzko abenduaren 15eko 5/2003 Legearen 6.1 artikulua).

Zazpigarrena: Aurreproiektua Bizkaiko Garraio Partzuergoari eta BAT txartela Kudeatzen duen Erakundeari helaraztea, dagokien nahitaezko txosten ez-loteslea egin dezaten hilabeteko epean.

Bilbon, 2022ko urriaren 18an.—Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatua, Miguel Ángel Gómez Viar